



**mundukide**

kooperazio kooperatiboa  
*cooperación cooperativa*

## MUNDUKIDEREN KOOPERATIBA ARTEKO VII. LASTERKETA SOLIDARIOAREN ARAUDIA

1. IZENA: Mundukide Fundazioak Kooperatiba arteko Lasterketa Solidarioa antolatu du 2022ko urriaren 16rako (igandea), Aretxabaletako (Gipuzkoa) Urkulu urtegia.

2. IBILBIDEA: ibilbidearen xehetasunak eta parte hartzeko modalitateak [www.mundukide.org](http://www.mundukide.org) webgunean daude argitaratuta.

3. PARTE HARTZEA: nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, hala federatuek nola ez-federatuek, sexu eta nazionalitate bereizketarik egin barik, baldin eta izena behar bezala ematen badute, hau da, garaiz eta horretarako ezartzen den moduan.

4. IZEN EMATEA: parte hartzaileek Internet bidez eman beharko dute izena ekitaldiaren webgunean ([www.mundukide.org](http://www.mundukide.org)) 2022ko urriaren 7ko 23:59ra arte. Lasterketaren egun berean ere izena eman ahal izango da Aretxabaletako Aozaratza auzoko Otalora Jauregiko aparkalekuan, urtegiaren sarreran. Parte hartzaileek, izena ematean, kirol ekitaldian parte hartzeko baldintza fisiko egokietan daudela adierazten eta onartzen dute. Parte hartzaileek eta lasterketan parte hartzen duten pertsonak osoki lagako dituzte irudi eskubideak eta horiek ustiatzeko eskubideak, antolatzaileek nahi dutenerako zabaltzeko, eta parte hartzaileek ez dute eskubiderik izango inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko.

5. ASEGURUAK: parte hartzaile guztiek istripu eta erantzukizun zibileko aseguru poliza bat izango dute, lasterketa sustatzen duen erakundeak hitzartua. Kanpoan geratuko dira pairamen latente batetik, zehurtziagabekeriatik, zabarkeriatik, legeak ez betetzetik eta abarretatik eratorritakoak. Aldez aurretik izen ematea formalizatu ez eta lasterketan parte hartu nahi duen pertsona orok pertsona fisiko gisa duen erantzukizunpean parte hartuko du, eta antolakundeak ibilbidetik kanporatu ahal izango du, eta ez du inolako sailkapenik lortuko, halakorik balego. Erakunde antolatzeileak uko egiten dio lasterketan parte hartzen ari den bitartean atleta batek bere buruari edo hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalte fisiko edo moralen gaineko erantzukizun orori. Lasterketan zehar korrikalari guztiek dortsala eraman beharko dute aurrealdean, ondo ikusteko moduan eta tolestu gabe. Artikulu hori ez betetzeak deskalifikazioa ekar dezake.

6. DORTSALAK EMATEA: dortsalak jasotzeko ordutegiari, egunari eta lekuari buruzko informazioa [www.mundukide.org](http://www.mundukide.org) webgunean egongo da eskuragarri.

Izena web bidez eman duten pertsonak NANA, AIZ, pasaportearen edo izen ematea berresteko mezu elektronikoa aurkeztu beharko dute.

7. ERANTZUKIZUNA: parte hartzaileen erantzukizunpean eta arriskupean dago ekitaldian parte hartzea. Parte hartzaileak, izena emateko unean, lasterketaren ibilbidea osatzeko fisikoki gai dela adierazten du.

8. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA: Mundukidek parte hartzaileen datuak tratatuko ditu, helburu nagusi hauekin:

- Lasterketan izena emateko tramiteak.
- Parte hartzaileen kudeaketa: dortsalak emateko nortasuna egiaztatzea; dortsalak esleitzeko parte hartzaileen zerrendetan izen-abizenak argitaratzea; lasterketaren kronometrajea; sailkapenak argitaratzea eta, halakorik egonez gero, sariak ematea.
- Lasterketaren kudeaketari eta izan litezkeen gorabeheri buruzko jakinarazpenak, hala nola dortsalak emateko prozedura, proben ordutegiak, ibilbidea eta abar.
- Ekitaldiak irauten duen bitartean irudiak (argazkiak eta bideoak) jasotzea, ondoren Mundukideren eta erakunde erantzukideen hedabideetan eta komunikabideetan zabaltzeko, bai lasterketa bai tratamenduaren arduradunen jarduerak zabaltzeko eta publizitatea egiteko. Tratamendu horrek berekin dakar irudien gaineko eskubideak lagatzea; lagapen hori doan egiten da, inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe eta denbora mugarik gabe; beraz, mugagabetzat jo behar da. Lagapenaren lurralde eremua nazioartekoa izango da, tratamenduaren arduradunak Interneten daudelako. Zure datuak tratatzeko oinarri juridikoa interesdunaren baimena da. Eskatutako datuak beharrezkoak dira deskribatutako helbururako; beraz, datuok ez emateak ekitaldian parte hartzeko tramitazioa eragotziko luke. Datuak ekitaldia aktibo dagoen bitartean gordeko dira, eta, ondoren, aplikatzekoak diren legezko epeetan, betiere 5 urte gainditu gabe. Baimena lasterketaren data baino lehen ezeztatzen bada, horrek berehala baja ematea ekarriko du, eta ezin izango da parte hartu, izena emateko prozesu osoa berriro osatzen ez bada behintzat; datuen tratamendua ezeztatzeak ez du eskubiderik emango ordaindutakoa itzultzeko. Aseguru erakundeei zure datuen berri emango zaie, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruia tramitatzeko. Helburu gehigarri gisa, Mundukidek zure datuak erabiliko ditu bere xede eta helburuei, albisteei, deialdiei eta ekitaldiaren edo antzeko jardueren hurrengo edizioei buruzko jakinarazpenak posta bidez eta bitarteko elektronikoz bidaltzeko. Zure datuak helburu horietarako tratatzeari uko egin diezaiokezu izen ematea berresteko bidaliko dizugun mezu elektronikoan. Bidaliko zaizkizun mezu guztiek modu erraz eta doako bat izango dute gure banaketa zerrendan baja emateko. Zure datuak tratatzeko oinarri juridikoa interes legitimoa da. Helburu gehigarrietarako datuak gorde egingo dira interesdunak datu horiek ezabatzea eskatzen ez duen bitartean. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak erabil ditzakete. Horretarako, Mundukidera jo behar dute idatziz, beren nortasuna behar bezala egiaztatuz. 0}Interesdunek eskubidea daukate emandako baimena kentzeko eta Kontrol Agintaritzan erreklamazioa jartzeko (Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, [www.agpd.es](http://www.agpd.es)).

9. ONARPENA: parte hartzaile guztiek, lasterketan parte hartze hutsagatik, Araudi hau onartzen dute, eta zalantzarik izanez gero edo bertan jaso gabeko egoeraren bat sortuz gero, Batzorde Antolatzaileak xedatzen duena beteko da.